

BILBOKO UDALA. Alkatearen jarrera «otzana» kritikatu du Batasunak

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak «zentsura eta jazarpena» salatu du

Iñaki Azkunak bertan behera utzitako lau saioak sinatuta dituzte

Erredakzioa | **BILBO**

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak «zentsura eta jazarpen egoeratzat» jo zuen atzo, otsailaren 16rako eta 17rako Bilboko Udalarekin sinatuta zizuten lau saioak Iñaki Azkuna alkateak bertan behera utzi izana. Saioak hitzartuta ez ezik sinatuta ere badaudela zehaztu zuten pailazoek, eta Udalak sinatutakoa «berak hautsi» duela nabarmendu zuten.

Haur Antzerki Jaialdiaren barruan hilaren 16rako eta 17rako lau saio eskaintzekoak ziren pailazoak. Jaialdiaren ardura Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirola Sailak du, Juan Maria Ulibarriren (EA) ardurapean. Herenegun, baina, alkateak esan zuen pailazo taldeak ez duela parte hartuko jaialdian. Dimas Sañudo PSE-EEko zinegotziaren eta Antonio Basagoiti PPkoaren eskaerei erantzun zien modu horretara, herenegun, Azkunak. Aiora Zulaika (Pirritx) taldekide eta Batasuneko zinegotziak Froilan Elespe Lasarte-Oriako zinegotzi sozialistaren hilketa gaitzetsi ez zuelako hartu zuen neurri hori alkateak, orduan argudiatu zuenez.

Pailazo taldearen ustez, «zentsura eta jazarpen» egoerak «inkisizio garaira garamatza». «Gogaituta» sentitzen direla aitortu zuten taldekideek ohar batean, «euren interes partidistak



Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizun bat.

medio, gure taldearekiko, Euskal Herriko haurrekiko eta, oro har, gizarte osoarekiko politikari batzuk erakusten ari diren zabarkeriaz».

Taldekideek adierazi zuten, «egiten dugun lanagatik eta lantzen ditugun balio pedagogiko eta didaktikoengatik izan behar dugu baloratuak eta, nahi izanez gero, epaituak ere». Gogoratu zuten, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak «gure parte-hartze zuzena izan duen lanetako bat saritu zuen. Ikasmaterialaren kalitateari eman zion saria». Horrez gain, *Aupa Kintxo* ikuskizunarekin az-

ken Gabon jaietan 27 saio egin dituztela jakinarazi zuten, «kolore guztietako Udalak dituzten herrietan».

Bestalde, Batasunak «lotsagarritzat» jo zuen Azkunaren «jarrera otzana eta zitala», PP eta PSE-EEren eskaerak onartu dituelako. Batasunaren ustez, bi alderdi horiekin «politikoki eroso sentitzen da» Azkuna, «Aiora Zulaika taldekidearen kasuan bezala, zinegotzi abertzaleen kontrako jazarpen politikoan esku hartzen duenean».

Azkenik, dei egin zion Juan Manuel Ulibarri «alkatearen inposizioa» onar ez dezan.

LAGURREAN

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Elkarriren mahai-inguruan bildutakoak, atzo, Getxon.

EAJ, EA, Batasuna, EB-IU eta PSE-EE alderdietako ordezkariak Elkarriko mahai-inguruetan bildu dira

Josune Ariztondo (EAJ), Gorka Knörr (EA), Karmelo Landa (Batasuna), Mikel Arana (IU-EB) eta Josu Montalbán (PSE-EE) Getxon bildu ziren atzo arratsaldean, Elkarri Bake Konferentziaren barruan egiten ari den mahai-inguruetako batean parte hartzeko (argazkian). Laudion eta Legazpin ere elkartu ziren. Martxoa bitartean 20 mahai-inguru egingo dira; Hego Euskal Herriko alderdi denek hartuko dute parte, PPk salbu.

Caride euskal presoak trasladoan tratatu desegokia jasan zuela salatu du Etxerat-ek

Rafa Caride euskal presoak erizaindegira eraman behar izan zutela salatu du Etxerat-ek; A Lamako kartzelatik Valdemorora zeramatera bidean haize izoztua jarri zioten Carideri furgonetan, eta gorputzean 34 graduko tenperatura zuela ikustean, erizaindegira eraman zuten, Etxerat-en arabera.

PSE-EEko bi zinegotziren aurkako ohar anonimoa zabaldu dute Zornotzan

Zornotzan hainbat pertsonaren izen, auto matrikula eta telefonoa zeramatzan oharra zabaldu du norbait, «zapaltzaileari aurre egiteko» deia eginez, *El Correo* egunkariaren arabera. PSE-EEko Alberto Borobia eta Antonio Castellet zinegotziak, hiru ertzaina eta Udal langile bat bide datoz.

Donostiako Udalean bakegintzarako diru laguntzetan irregulartasunak egon direla salatu du Batasunak

2000. urtean Donostiako Udalak bake proiektuak bideratzeko 6 milioi pezetako diru laguntza banatu zuen zenbait talderen artean, eta prozedura gaizki egin zuela dio Batasunak; bestalde, gero talde gehienek ez omen zituzten burututako ekintzak egiaztatu. Aurten talde berak aurkeztu direnez, neurriak hartzea eskatu du, eta txostena eskatu dio Idazkaritzari Nagusiari.

Bihar**barkatu**
ama**Egunkaria**

2001. urteko kutunak, zuen aukera
Borja Crespo: «Ziur nago 'Snuff 2000'-k polemika sortuko duela»
The Walkabouts eta Terry Lee Haleren kontzertua Bilbon
Azken portuko tabernan, Jon Manzisidor
...zure independentzia

